# «EUSKAL MITOEZAZ»: Basterretxea'tar Nestor'ek egin duan agerketari buruz iritziak *

Ba-dira urteak Basterretxea'tar Nestor jaunarekin lenengo aldiz mintza nintzala: Arantzazu'n aurrena (1953-garrenean) eta Donibane-Loitzun'en urrena (1955-garrenean).

Burutan zerabillen berak euskal-gizabidea eta onen sustraiak ezagutu eta auezaz eta auen adierazgarri izentatuenezaz zeatzki jabetu naia.

Esaunda zaarrak eta auen gaurko eta leengo adierazpenak zebiltzan etengabe bere ikusbiran: nik ere nere buruan aspaldidanik nabari nituan gogoeta berberak. Bide ortan gabiltza oraino.

Au guzti au ordea oikunde aski lainotsuz edota agerkari gandutuz eginiko mundu bat bezala ageri zaigu, aldi batzuetan beintzat.

Alor ortan ustezko izakiak, ernebidean edo eraketan geldiur gabe dabiltzala, egite garbi zeatzen billa dijoatzela dirudi, aldietan. Baita inoiz ordezkarien eske ere.

Erriak berak izenta oi ditu iñoiz ordezkari auek, zenbait deitura, iduri eta gizaki zeatzen bidez *(Sorgin-irelua Aizpitarte'ko sorgina; Basa-andere Muntxaraz'go Mari-Urraka);* deitura, iduri eta gizakide, geldi gabe aldaketan dijoatzenak noski.

Aipa bear degu gañera gogoeta utsez eginiko izakien erlo zabala ere, oraino eginbidean edo sortzeko zorian dabiltzan aidetikako izakiena, alegia: *irelu, irelkuma,* Mari, Basajaun, Maju, Torto, Gaueko eta beste izaki edo izen aundien illunbetako mundua, ertilariak argitu eta mintzoeraziko dion mundua.

Buruz jantzitako edo burudun norbaitek (ertilariak beintzat) ba-luke or zeregina: asmaketa berriak piztuaz alegia, bere gogai eta autzek argierazte dute-

* Honako idazlan honetatik atereita: Nestor Basterrechea, *Pintores y escultores vascos de ayer, hoy y mañana,* Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.

la batez ere. Baita etnikerlariak beren gaietan, azterketan bidez, ezin agerrerazi dituzten izkutuko gogoeta eta esan-nai asko igarri al lezake.

Alde ortarik dijoatz, nere ustez, Basterretxeak ebaki duan bidearen zuiñak. Lan aundia du jadanik egina. Miresten degu eta mirestuko.

## JUICIOS DE «MITOS DE VASCONIA»

Allá por los años de 1953 a 1955, en Aránzazu primero y en San Juan de Luz después, D. Néstor Basterrechea me habló de su preocupación e interés por conocer y sentir hondamente las viejas raíces del humanismo vasco y sus símbolos más destacados.

Los viejos relatos legendarios y las nuevas interpretaciones eran temas que cruzaban insistentemente su campo de visión; los mismos que yo había vivido y registrado en el proteico mundo de nuestras tradiciones mentales. Entre ellos nos movemos todavía.

Es ciertamente un mundo de vigencias harto nebulosas a ratos o de escenas imprecisas. En él los personajes, siempre *in fieri,* en proceso de formación, tienden en ocasiones a tomar contornos terminantes o a perfilarse en algo concreto. Incluso buscan actores que los representen. El pueblo mismo les señala a veces sujetos que los protagonicen, con nombres y formas concretas que varían de unas épocas a otras.

Queda todavía, sin embargo, ancho campo de entes sin razón, seres leves en estado de conatos, misterioso mundo de eones, númenes y nombres, al que el artista hará que hable. Es ahí donde el genio puede ir creando conforme le inspiren sus castálidas y aun captar el pensamiento que fluye inaccesible al puro análisis del material que investiga y estudia el etnólogo. Por ahí va, según creo, el hilo o uno de los hilos que marcan la ruta abierta por la obra de D. Néstor Basterrechea. Es mucho lo que lleva conseguido. Le admiramos y le admiraremos.